

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektuaren garapenerako, elkarlanean oinarritutako loturak sortzea eta hornitzaile egokiak aukeratzea funtsezkoa izango da. Sozioekin eta elkarlanean arituko garen gainerako enpresekin eta elkarlanean arituko garen gainerako enpresekin proiektuan modu aktiboan parte hartuko dugu, jarduerak eta ekitaldiak antolatuz, eta hornitzaileek, berriz, beharrezko produktuak eta zerbitzuak eskainiko dizkigute kudeaketa-lanetan parte hartu gabe. Bi talde hauek behar bezala koordinatuta, jardueraren kalitatea eta bezeroei eskainitako zerbitzuak eta haien gogobetetasuna bermatzeko oinarriak finkatuko dira.

Sozioek hainbat arlotan lagunduko dute. Jimmy Jazz aretoaren bidez, ekitaldiak antolatzeko espazio bat izango dugu, kontzertuak, hitzaldiak edo bestelako jarduerak egiteko. Espazio hori beharretara egokitzea eta ordutegiak zehaztea elkarlanaren parte izango dira. Ekigune psikologia zentruari esker, laguntza psikologikoa eskainiko dugu, gure bezeroen dolua kudeatzeko edo bestelako behar emozionaletarako. Hauekin, zerbitzu espezializatuak diseinatuko ditugu, parte-hartzaileen ongizatea bermatzeko. Catering Sarayola-k, ekitaldietarako janari-zerbitzu pertsonalizatua eskainiko du, bezero bakoitzaren nahi, deseo, kultura eta erritualetara egokitutako menuak prestatuz. Musikariek (bezero bakoitzaren gustuaren arabekoak), berriz, zeremonietarako musika tradizionala edo pertsonaren gogoko musika eskainiko dute, ekitaldien giroa egokitzeko. Azkenik, Jostari elkarteak jarduera fisikoak eta talde-dinamikak antolatuko ditu, familia edo komunitate osoa biltzen duten ekitaldietarako.

Hornitzaileek ere beren funtzio zehatza izango dute. Floristeria Goya-k lore naturalak eta dekorazio-elementuak hornituko ditu gure lokalak, zeremonien estetika eta sinbolismoa indartuz. Ritualetarako hornitzaileek, berriz, erlijio edo espiritu-zeremonietarako materialak eskainiko dizkigute, hala nola intzentsua, kandelak edo eskaintza-elementuak, behar den kalitatea eta sinbolismoa bermatuz. Transportes Arriaga-k gorpuak



edo sozioak ekitaldi-lekuetara eramateko garraio-zerbitzua eskainiko du. Zerbitzu hori behar zehatzetara egokituko da, esaterako, erabilitako ibilgailuen edukiera eta berezitasunak kontuan hartuta.

Azkenik, **hil-kutxen eta hautsak garraiatzeko ontzien hornitzaile bat** aukeratzea garrantzitsua izango da. Ataudes La Fabrica, S.L enpresak hileta-zerbitzuetarako hil-kutxak eta materialak eskainiko ditu, eta jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten produktuak aukeratzea aukera erakargarria izango da. Hil-kutxak egurrezkoak izan daitezke edo, ingurumenarekiko errespetua sustatzeko, material biodegradagarriekin eginak. Gainera, bezeroen behar eta desioetara egokitzeko, pertsonalizatzeko aukera ere eskainiko da, diseinu bereziak edo kultur sinboloak erabiliz.



Horrela, sozioen eta hornitzaileen arteko lankidetzak egonkor eta koordinatuari esker, proiektua modu eraginkorrean gauzatu ahal izango da, eta aldi berean, parte-hartzaile guztien beharrak aseko dira. Elkarlan honek, jardueraren kalitatean eta erabiltzaileen gogobetetasun eta esperientzian positiboan islatu beharko du.

Publizitatea:

Ehorztetxearen **publizitatea** egiteko modu diskretu, profesional eta errespetuzkoa izan behar da, kontuan hartuta sektoreak duen sentsibiltatea eta bezero potentzialen behar emozionalak. Hona hemen publizitate egokia eta irisgarria egiteko helburuareki elkarlanean arituko garen enpresak:

1. Webgune profesional eta informatiboa sortuko du Aitana Rodríguez izeneko partikularrak.

Diseinatuko du webgune garbi eta profesionala, informazioz betea. Zerbitzuak, tarifak eta laguntza-prozesuak argi azaltzen



dituen atala gehituko du. Gainera, aholku-baliabideak (hildakoen kudeaketa administratiboa, lore eskaerak, hiletetarako aholkuak) ere agertuko dira.

2. Tokiko komunikabideetan publizitatea (Euskadi irratia)

Tokiko egunkarietan eta, batez ere, irradi-programetan iragarkiak jarriko ditugu bezeroen arreta gureganatzeko.

3. Sare sozialak eta marketing digitala (Gu geu arduratuko gara honetaz)

Sare sozialak erabiliko ditugu, hala nola Facebook edo Instagram, komunitatearen informazio iturri gisa. (Influencer batekin harremana izango dugu berak publizitatea egin dezan, **@beardeduck28**)

4. Harremanak komunitatearekin (Gu geu arduratuko gara honetaz)

Antolatuko ditugu **hitzaldiak edo tailerrak** doluaren kudeaketari edo testamentuak prestatzeari buruz.

5. Hitzarmenak beste enpresa batzuekin (Mapfre aseguradorekin)

Lankidetzan arituko gara aseguruekin (**mapfre**) eta testamentu-aholkulariekin, haiek publizitatea egiteko. Horrela, gure zerbitzuak modu naturalean gomendatuko dituzte.

6. Testigantzak eta gomendioak (Gu geu arduratuko gara honetaz)

Aurretik gure zerbitzuak erabili dituztenei iritzia emateko eskatuko diegu, eta testigantza hauek webgunean edo sare sozialetan partekatuko ditugu.

7. Dolua kudeatzeko laguntza eskaintzea (Gure psikologoa arduratuko da honetaz)

Sortuko ditugu dolu-taldeak edo gida-baliabideak. Zerbitzuen inguruan sentsibilitatea erakutsiz, gure markak jendearengan sinpatia eta konfiantza irabaziko du.

Estrategia hauek gure ehorztetxearen irudia profesionala, gertu dagoena eta baliagarria izan dadin lagunduko dute, betiere errespetua mantenduz.